

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Folk-rock amerikarra Ibardinekin mugan

Irazoki mila batailatan eskarmentua hartutako musikaria da; are gehiago, Berako musikarien leinukoa ere bada. Dozena bat proiektu aldi berean eramateko gai da, beti ere emaitza dotoreekin. Inguruko beste bi musikari eskarmentudun bere izena belardian daraman proiektura

batuz folk eta rock amerikarra gurera hurbildu dituzte. Horrez gain, Onddoren garaiko pop-rocka, countrya edota emaitza rockero eta gitarreroagoak ere landu dituzte. Bestalde, bitxia da Zuberoako abeslarien –Niko Etxart bera ez litzateke urruti ibiliko– erregistro antzekoa hartu izana. Mikel Errazkinen lagun-tzarekin, emaitza zeharo borobildu dute. Hitzetan oraingoan ere Bitoriano Gandiagaren poemak dira enbor nagusiena, baina badira, Sarrionandiak batutako poemak eta Mikel Tabernaren idatziak ere, bestekak beste.



Pobre gara  
**Joseba Irazoki &  
Belardian**

HIRUSTA

Iraupena: 50'50"  
13,95 euro

JOSEBA IRAZOKI

### «Nahiz eta zeharka izan, inoiz egin dudan diskorik politikoena da»

Zer aurkitzen du Joseba Irazokik belardian? Emankorra izan da taldean lan egitea?

Belardi gisako oinarri sendoa izan da taldea niretzat. Egia da, beti ere, beste pentsamoldeekin lan egitea ez dela erraza, baina ondo moldatu gara eta emaitzarekin gustura gaude.

Konponketa eta sonoritate ugari daude kantuen baitan. Mikel Errazkinen aukeraketa izan da? Zein izan da bere egitekoa?

Diskoa hirukote moduan prestatu dugu lokalean, baina estudioan kantak gehiago janzteko gogoan nuen. Mikelek hasieran ez zuen argi ikusten, baina gustura gelditu da. Nirekin batera ekoizpen lana egin du. Instrumentu guztiakin lan egin du, baina batez ere ahotsen ekoizpenean.

Ardiek ez al dute Ibardineko muga ikusten? Eta Josebak, ikusten al du horrelakorik musika idazterakoan?

Hobeto ardiek ez badituzte ikusten... eta nik, ba kontzienteki ez dizkiot mugak jartzen nire musikari; gauza desberdin asko egitea gusta-

tzen zait. Baina, baliteke gaur egun dagoen informazio pila azkenean muga gisako bat izatea sortzen ari garenontzat.

**Gerra, Bakea, Mugak... Saihestezina da, hitz politikoak egin nahi izan ez arren, non bizi garen gogoratzea?**

Bai, zaila da zerbait esan eta bizi dugun egoera bizi

izanda gai hauek ez aipatzea. Egia da nahiz eta nahiko zeharka izan inoiz egin dudan diskorik politikoena dela; batzuk hitz potoloak dira, baina zeharo identifikatzen naiz.

**Bidasoa da zuen Ganges partikularra edo ez duzue hainbeste miresten?**

Gure herrietatik pasatzen den ibaia izanda asko maite dugu, horrelako lekuetan bizi garenontzat natura oso garrantzitsua da. Musika egiterakoan hori nahiko nabaritzen dela uste dut.

**Zertan datoz bat Bitoriano Gandiaga eta Joseba Irazoki?**

Ez dakit, baina beti esaten dut bere poemak oso musikalak iruditzen zaizkidala eta horregatik auke-ratzen ditudala. Orduan, musika izango dugu ezaugarri komuna.

